

## **EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO EGITASMOA BORTZIRIETAKO ENPRESETAN AURKEZPEN PRENTSAURREKOA**

- **EGUNA:** Otsailaren 8an, ortzegunarekin.
- **ORDUA:** 11:30ean.
- **TOKIA:** Beran, Beralandetan.
- **PARTE HARTZAILEAK:**
  - Leire Mitxelena Gamio: Bortzirieta Euskara Mankomunitateko lehendakaria.
  - Aitor Elexpuru Egaña: Berako alkatea.
  - Ainhoa Elices Balda: EMUN aholkularitza.

### **Laburpena**

Bortzirieta Euskara Mankomunitateak, EMUN aholkularitzarekin elkarlanean, Bortzirieta enpresetan euskararen erabilera areagotzeko egitasmoa abiatu du; apirilaren bukaerara arte zenbait enpresa bisitatuko ditugu.

### **LEIRE MITXELENA GAMIO (BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEKO LEHENDAKARIA)**

Egun on, eta mila esker gaur hona etortzeagatik.

Egitasmo berria abiatu dugu eta horren berri emateko deitu zaituztegu. Gure asmoa da Bortzirieta enpresetan euskararen erabilera sustatzea, eta horretarako EMUN aholkularitzaren laguntza izanen dugu.

### **Aurrekariak**

Bortzirieta enpresetan euskaren erabileran aitzinera egiteko saiakerekin aspaldi hasi ginen. Lantegi handietan eragiteko Lan Munduko Batzordea sortu zen bere garaian eta egin zuen bere bidea; sentsibilizazio ekimenak, kanpainak, mahainguruak, argitalpenak, eta abar. Etenaldi baten ondotik, euskara mankomunitatek eragite lan horri segida eman genion, bakarka edo inguruko euskara zerbitzuekin elkarlanean. Aipatzekoak dira Mendialdeko euskara zerbitzuok elkarlanean prestatu genuen [gidaliburua](#) eta Euskarabidearen dirulaguntza deialdiari zabalkundea emateko ahalegina.

Euskaraldiko azkeneko bi edizioetan ere (2020an eta 2022an) jorratu zen enpresa mundua; Bortzirieta zenbait enpresatan ariguneak izan zituzten ariketak iraun bitartean.

## **Egitasmoaren garrantzia**

Euskararen erabilera tikia da esparru sozio-ekonomikoan. Eskualde euskalduna da gurea eta orain arte nahikoa erdalduna izan den eremua euskalduntzeko erronka daukagu. Hagitz zabaldua dago lan mundua modu naturalean eta esku hartze planifikaturik gabe euskaldunduko dela, baina kontrakoa gertatu ohi da: euskaraz ikasi duten langileen trebetasunak okerrera egiten du erabilera ezaren poderioz. Izan ere, lantokietako hizkuntza nagusia gaztelania izan ohi da. Lan munduan eragin behar dugu bertze arlo batzuetan (hezkuntzan, administrazioan, hedabideetan...) egindako lana finkatzeko. Horretarako, eragile guztien esku hartzea eta elkarlana beharrezkoak dira: administrazioa, sindikatuak, enpresariak eta euskalgintza.

Euskara mankomunitatearen plan estrategikoan erabateko lehentasuna ematen diogu lan munduaren euskalduntzeari. Honako hauek dira gure helburu nagusiak:

- Euskara laneko hizkuntza izan dadin eragitea, eta lan mundua nagusiki euskaraz izan dadin lortzeko datozen urteotako estrategia bateratuan parte hartzea.
- Enpresa handietan euskararen presentzia areagotzea.
- Bortziriako zenbait enpresatan euskararen erabilera areagotzeko planak abiatzea, bide hori urratzen hastea.

## **Helburuak eta egitasmo berria**

Abian jarri dugun egitasmo honekin gure helburua da Bortziriako enpresa handietan eragitea. Gonbidapena egin nahi diegu euskararen erabilera areagotzeko erabaki eta neurriak har ditzaten. Bide horretan, elkarlana eta laguntza eskainiko diegu.

Nahiz eta arlo honetan eragiteko saiakerak aspaldikoak izan, egitasmo honen berritasuna da EMUN aholkularitzarekin elkarlanean ariko garela. Izan ere, lan munduaren euskalduntzean ezagutza eta eskarmentu handia dute. Hemendik eta apirilaren bukaera bitarte, zenbait enpresa bisitatuko dituzte, eta jarraian hitza emanen diot EMUNeko Ainhoari; hark azalduko dizkigu aurreikusten diren epeak eta urratsak.

## **AINHOA ELICES BALDA (EMUN AHOLKULARITZA)**

### **Egitasmoaren urratsak eta epeak**

Urte hasieran abiatu genuen egitasmoa eta dagoeneko osatuxea dugu Bortziriako enpresen mapa. Interesa duen edonork ateak irekita izanen baditu ere, lehenbiziko txanda honetan berariaz 10 bat enpresatara joko dugu. Horien artean badira enpresa handiak eta tikiagoak, batzuetan langileen batzordetik bideratu izan dituzte eskaerak, badira Euskaraldian parte hartu duten enpresak, eta abar. Beraz, erran bezala, Bortziriako 10 enpresarekin harremanetan jarriko gara datozen egunotan. Harreman horren bidez, otsailetik apirilera bitarte haietako bakoitzaren ordezkariekin elkartzeko hitzorduak lotuko ditugu. Bilera horietan egitasmoaren berri eman eta lantokian euskararen erabilera handitzeko zein neurri hartu dezaketen aztertuko dugu, eta horretarako enpresa bakoitzaren errealitatea kontuan izanen dugu. Era berean, euskaren erabilera handitzeko

laguntza-baliabideen berri ere emanen diegu eta Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutuak helburu horrekin emanen dituen diru-laguntzen berri ere izanen dute.

Bisita horiek, erran bezala, otsaila eta martxoa artean eginen ditugu eta enpresa bakoitzak euskararen presentziaren inguruko autodiagnostiko arina egiteko aukera izanen du bertan. Horrez gain, zein konpromiso hartu dezaketen irudikatzen laguntzeko aholkularitza ere jasoko dute. Horrela, konpromiso horiei begirako helburuak eta ekintzak zehaztu eta antolatzeke aholkularitza eskainiko diegu bisitatutako enpresei.

Ondoren, Bortziriako enpresendako saio ireki bat antolatuko dugu martxo amaieran. Lan-saio horretan, eskualdeko lantegietan euskararen presentzia areagotzeko aurrera begirako urratsez hausnartu eta Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza deialdiaren inguruko zehaztasunak emanen ditugu.

Egitasmo honek udaberri honetan izanen du abiapuntua baina, Leirek erran bezala, lan mundua euskalduntzeak duen estrategikotasuna kontuan hartuz, datozen urteetan ere jarraipena izatea nahi du euskara mankomunitateak. Horrela, orain bisitatuko diren 10 enpresez gain, enpresa gehiago bisitatu eta egitasmoan parte hartzera gonbidatu nahi dira.

### **LEIRE MITXELENA GAMIO (BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEKO LEHENDAKARIA)**

Erran bezala, lan munduaren euskalduntzea funtsezkoa da, lehentasunezkoa. Gure aldetik, honako hauek dira gure konpromisoak:

- Aholkularitza eta elkarlana eskaintzea enpresei.
- Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzen inguruko informazioa eta aholkularitza eskaintzea.

Arestian aipatu dugu, lan mundua euskalduntzeko urrats eraginkorrak nahi baditugu, ezinbertzekoa izanen dela hainbat eragileren esku hartzea eta elkarlana: enpresak, sindikatuak, Euskarabidea, udalak eta mankomunitatea, garapen agentzia, lanbide heziketa, euskaltegia, euskaltzaleen mugimendua, eta abar. Gure nahia litzateke egitasmo hau iraunkortzea eta gaiak duen garrantziaz ohartarazita lan mahai bat osatzea, esku artean ditugun erronkei erantzuteko. Egitasmoa bukatuta eta emaitzak baloratura erabakiko ditugu hurrengo urratsak. Hortaz, maiatza hasieran zuekin harremanetan jarriko gara berriz ere egitasmoak izan duen oihartzunaz solastatzeko.

Mila esker,